



# Eraginez piztu

*Debagoieneko  
Trantsizio  
Energetikorako  
esku-hartze  
proposamena*

**D2030**

**01** 3. orria

SARRERA

**02** 4. orria

DEBAGOIENA 2030:  
DEBAGOIENAREN  
ERALDAKETA SAKONA IPAR

**03** 5. orria

ENERGIAREN ERRONKA

**04** 7. orria

TRANSIZIO  
ENERGETIKOAN  
ERAGITEKO  
PROPOSAMENERANTZ

**05** 8. orria

ERAGINEZ PIZTU:  
DEBAGOIENENKO TRANSIZIO  
ENERGETIKORAKO ESKU-HARTZE  
PROPOSAMENA

**06** 9. orria

PROIEKTUZ PROIEKTU

AURKIBIDEA

# 01 SARRERA



Dokumentu honetan, Debagoiena 2030 ekimenak sustatuta, Debagoienaren trantsizio energetikorako esku-hartze proposamena aurkezten da.

Energia ereduak da zalantza bariarik, klima aldaketa eragiten duten faktoreen artean esanguratsuenetakoa. Horregatik, D2030 ekimenaren baitan, lehenetsuz abiatu dugu eskualdeko eredu energetikoa eraldatzeko bidea. Horretarako erronkaren esplorazio sakona egin ostean, eskualdeko eragileekin batera Debagoieneko eredu energetikoa eraldatzeko aipaturako esku-hartze proposamena osatzen hasi gara, D2030etik esperimentatzen eta eraikitzen ari garen eskualde garapenerako eredu berrituan oinarrituz.

# 02

## DEBAGOIENA 2030: DEBAGOIENAREN ERALDAKETA SAKONA IPAR



Debagoiena 2030 ekimena Debagoienaren garapen iraunkorra sustatzeko erakunde, eragile eta herritar desberdinez osatutako lankidetzaren sare irekia da, eskualdeko eremu ezberdinetako eragileek osatzen dutena.

Jendartearen bizimodu eta ongizatearen inpaktu handia izango duten erronka global eta konplexuen garaia da gaur egungoa. Azken hamarkadetako bizi ereduak lurreko bizitzaren iraunkortasuna arriskuan jarri du. Egoera honi aurre egiteko ezinbestekoa izango da garapena eta iraunkortasunaren arteko oreka bilatzea.

Testuinguru honetan, eraldaketaren olatua aktibatzea dagokigu egungo gizarteoi, desoreken oinarriak mugiarazi eta gizarte eredu iraunkorrak eraikitzea: sozialki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik iraunkorrak izango direnak. Mugimendu hori Debagoiengan aktibatuz sortu da D2030 ekimena eta horretarako, honakoa definitu da eskualdeko eragileen artean:



**BISIOA:** Lurraldearen garapen komunitarioan sakonduz, 2.050 urterako adimentsua, inklusiboa eta klimatikoki neutroa izango den Debagoiena.



**MISIOA:** XXI. mendeko erronka globalei erantzun komunitario propio bat emango dien eraldaketa mugimendu bat sustatzea, eragile nahiz norbanakoen arteko konexioak eginez, pertsonen mundu ikuskera eta balioetan eraginez eta erronkei erantzuteko inpaktu esanguratsua izango duten ekimen eta proiektu berritzaileak bultzatuz.

Aipatutako erronka konplexuen garai honetan, eredu iraunkorrera eman beharreko sakoneko eraldaketak posible egiteko, tokiko garapena birpentsatzea bilatzen du D2030ak, eraldaketa hori posible egingo duten estrategiak indartuz.

# 03

## ENERGIAREN ERRONKA

Eskualde adimentsu, inklusibo eta klimatikoki neutro bateranzko bidean, trantsizio energetikoarena erronka nagusienetakoa da. Aldaketa klimatikoa eragiten duten faktoreen artean, erregai fosiletan oinarritutako eta kontsumo maila intentsiboko eredu energetikoa, nabarmena da.


Testuinguru horretan, krisi ekologikoa sortzen duten faktoreak gainditzeko dugun denbora mugatua da: "erlojupeko eraldaketa" eman beharko da. Hurrengo hamarkada gakoa izango da honetarako. Datozen 10 urteetan hartzen diren, edota hartzen ez diren erabakiek, gure zibilizazioaren etorkizuna baldintzatuko dute.

Iraunkortasuna, ekonomia, justizia soziala edota burujabetza eskutik doazen ikuspegi integral batetik, azken urte eta hilabeteotan nabarmena den bezala, energiaren erronkak gure egunerokoaren lehen lerroak hartu ditu.

Goiburu hauetatik eratortzen diren datuei erreparatuz, Debagoienaren errealitate energetikoa esanguratsua bezain kezagarria da:


- 2017an Bagarak LKSren eskutik egindako ikerketak adierazten zuen, (2014an) Debagoieneko herritarrei dagokien CO<sub>2</sub> isurketa maila inguruko beste lurraldeetako herritarrena baino altuagoa zela. Europako lurraldeetan gehien isurtzen zutenen artean, 3. herrialdearen parekoa izango litzateke.

### Pertsona bakoitzaren isuri kopurua



Debagoienako TCO<sub>2</sub> isurketen per capita (TCO<sub>2</sub>/biztanleko) Europar Batasuneko beste herrieekin eta EAArekin konparatuta. Iturria: EAE BEG isurketen 2015eko inbentarioatik landuta.

- CO<sub>2</sub> isurketa gehien sortzen dituzten eremuak industria, garraioa, merkataritza eta etxebizitzarena dira hurrenez hurren:



Iturria: 2016ko Debagoieneko BEG isurketak sektoreka

- Udalsareak eskaintako datuen arabera, 2019an Debagoiengan ekoiztutako energiaren portzentajea, beraz burujabetza maila, %5,2koa da. Bertan ekoizten den energia hau, berriztagarrietan oinarritua dago, bestelako energia iturririk ez dagoelako eskualdean. Beste modu batera esanda, Debagoiengan kontsumitzen den energiaren %94,8a gure mugetatik kanpo dator.

Garapen iraunkorrera bidean, aipatu bezala eredu energetikoa eraldatzea agendan lehen tokietan kokatzen da, eta herritarren zein komunitatearen, eta sektore guztietako eragileen inplikazioa beharrezkoa izango da erronkari aurre egiteko. Batetik, administrazio publikoak, hezkuntza eta ikerketa zein eragile ekonomikoek, bakoitzak dagokion arlotik eta elkarlanean ekarpena egin behar dute. Bestalde, herritarrek eta komunitateak ere zeresan handia dute Trantsizio Energetikoaren inguruan. Izan ere, energia eredu iraunkorra lortzeko ezinbestekoa izango da balioak eta bizi ereduak eraldatzea: mugikortasuna, etxebizitzaren birgaitzea, kontsumo ereduak... Gizartearen zati bat, eredu iraunkorrera konbikzio propio sakonetik mugituko den arren, beste zati handi batek pausuak eman ditzan zubiak sortu beharko dira.

Aldaketa sakonak gertatuko diren aro honetan, gainera, pertsona eta komunitateak erdigunean izango dituzten begiradak beharrezkoak izango dira energiaren erronkari erantzuteko ere; aldaketak eredu justu eta inklusiboan emateko aukerak sortu behar dira, gizarte demokratikoago eta bizigarriagoak sortzeko dauden aukerak baliatuz.



## TRANSIZIO ENERGETIKOAN ERAGITEKO PROPOSAMENERANTZ

Gaur egun ditugun erronkak, eta energiarena horien artean, erronka globalak dira, baina tokian toki aurkitu behar zaie soluzioa; tokian tokiko errealitate ekonomiko, sozial eta kulturaletik abiatuta. D2030etik eskualde mailako lankidetzaz sustatzea dugu jomugan, eta horregatik, proposamen honetan ere, Debagoiena da subjektua. Eskualde eskala egokia da energiaren erronka lantzeko: sinergietatik eraldaketarako gaitasuna biderkatzeko aukera itzela eskaintzen digu, udalerrietatik sustatu daitezkeen ahaleginak osagarritu eta biderkatuz.

Gauzak honela, Debagoiena 2030en Gobernu Batzordeak energiaren erronka lehenetsunez lantzeko erabakia hartu zuen 2020an, eta urte bereko urrian honi erantzuteko prozesua abiatu zen, honako helburu hauekin:

- Hainbat arlotako eragileak elkar-konektatzea trantsizio energetikoaren helburu partekatuaren inguruan.
- Lankidetzaz sustatzea.
- Erronka horri hainbat ikuspegietatik aurre egitea ahalbidetuko duen esku-hartze proposamen bat, eta proiektu eta ekimen multzo bat abian jartzea.

Ordutik, azken 2 urteotan, energiaren sistema arakatu, kolektiboki interpretatu eta modu berean, elkarlanetik, energiaren eremuan eragiteko proposamen bat diseinatu dugu. Horretarako eremuan lanean ari diren erakundeei elkarrizketak, ikerketa, legedi, plan eta abarren arakatzeko sakonak, 2021eko martxoan 50 pertsonen osatutako online bateratze kolektiborako saioa, edota proposamen honen parte diren proiektuen sustatzaileekin lanketa ezberdinak egin dira. Laburbilduz, eragile publikoen (udalak, garapen-agentziak, etab.), eragile espezializatuen (KREAN, Goiener, Ekitermik, H-Enea, etab.) eta eragile komunitarioen (ikastetxeak, herritarrak) parte-hartzearekin, erronkaren azterketa bateratua egin da eta esku hartzeko proposamen bat diseinatu dugu.

Energiaren esku-hartze fasearen helburu nagusia eskualdean trantsizio energetikoa eman dadin baldintzak sortzea da, ekosistema gisa eraldaketa bultzatzeko duen gaitasuna handituz. Energiaren aferra agenda publiko zein pribatua lehen lerroetara iristen ari bada ere, esplorazio faseak erakutsi digu, eskualde gisa sakoneko urratsak emateko gaitasuna (ezagutza, sentsibilizazioa, finantzazio aukerak, irtenbide zehatzak argi izatea, elkarlan dinamikak) txikia dela oraindik. Gaitasun gakoak indartuta, inpaktu altuagoko proiektuak martxan jartzeko aukerak sortu nahi dira.

# 05

## ERAGINEZ PIZTU: DEBAGOIENENKO TRANTSIZIO ENERGETIKORAKO ESKU-HARTZE PROPOSAMENA

Energiaren erronka konplexua dela berriz ere adieraztea ezinbestekoa da. Erpin eta korapilo asko ditu. Gurutzatzen diren eremu eta errealitate ezberdin ugari. Eta gure eskualdean, aurretik ikusi bezala, karbono isurketan eta energia kontsumoan nabarmentzen diren hiru eremu daude: industria, mugikortasuna, eta etxebizitzak eta eraikinak. Egitasmo honek, eta eskualdeak berak, baliabide eta eskumen mugatuak dituztela ulertzea ere garrantzitsua da. Horregatik, D2030etik, hasiera honetan fokua eremu urbanoan jartzea erabaki dugu.

Energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumoa, eta eremu urbanoko eraikinen eraberritze energetikoa sustatzeko, nahiz trantsizio energetikoaren inguruan sortu daitezkeen jarduera ekonomiko berriak identifikatzeko, eskualdean ezagutza sortu eta zabaldu behar da, elkarlan eta elkarreragin dinamikak eman behar dira, sentsibilizazioa landu behar da eta esperientzia erreferenteak eman behar dira. Eta hain zuzen ere, behar honi erantzutera dator esku-hartze proposamen hau; interkonektaturik dauden proiektu zein ekimen desberdinen multzoa.

Debagoiena 2030en misioa, bisio partekatu bateranzko bidean lanean ari diren askotariko eragileen bultzada ematea da, eskualdean energia trantsiziorako dinamikak sustatzea eta gertatzen ari dena indartzea, alegia. Hau, proiektu ezberdinen arteko erlazioen lanketen bidez, baina baita proiektu bakoitzaren garapen propioan egin gura da.

Hau honela izanik, erronketan eragiteko baldintzak sortzearen bidean, D2030etik bultzatuko den esku-hartze proposamenaren lehen fase honetara begira, 4 helburu zehaztu dira:

- Ezagutza sortu eta zabaltea
- Elkarlan-elkarreragin dinamikak sustatzea
- Sentsibilizazioa lantzea
- Etorkizuneko eredu energetikoko esperientzia erreferente edo demostradoreak martxan jartzea

Esku-hartze proposamen hau abiapuntu bat da. Aurrera egin ahala irekitzen eta osatzen joango dena. Aipatzen dugun erronkaren konplexutasuna medio, proiektu eta eragile berriak gehitzen joango diren zalantzarik ez daukagu. Baina horretarako ezinbestekoa izango da, esku artean daukagun hau abiatzea, bidea eta emaitzak aztertzen joatea, eta errealitate berrien ezagutza eta ikasketetan oinarritzea, aukera berriei lekua egiteko. Esku-hartze proposamen irekia da, baina esan bezala, begirada sistemikoa oinarri duen prozesuaren emaitza izango da. Gaurko honetara ekarri gaituena, modu iteratiboan martxan egon dena.

Helburu hauen bueltan, Debagoieneko Trantsizio Energetikorako esku-hartze proposamen hau, 8 proiektu osatzen dute. Eta 50 dira guztira, modu batera edo bestera proiektu sistema honen parte diren eragileak.

Guzti hau aurrera eramateko inbertsio ekonomikoari dagokionez, 350.000 € inbertituko dira. Hurrengo banaketa honekin:

- D2030ek %83a
- Debagoieneko Udalek %14a
- Debagoieneko Garapen Agentziak %3a






## PROIEKTUAK

Martxan daudenak edo jarriko direnak:

- 1 Debagoiena eraberritzen
- 2 Birgaitzen
- 3 Erregulazio eraldatzailea
- 4 Energia denontzat
- 5 Tokiko energia berriztagarrien laborategia
- 6 Ikastetxe-klik
- 7 DG aukera energetikoak
- 8 Energia adierazleak



Esku-hartze proposamena, honako 8 proiektuek osatzen dute:

## 1 DEBAGOIENA ERABERRITZEN



### Birgaitzeak sustatzeko estrategia bateratua

Eremu urbanoko eraikinen eraberritze energetikoa sustatuz, energia kontsumoaren murrizketa lortu nahi da. Horretarako, herritarren, eragile ekonomiko eta instituzioen egoera ulertu, eta eraberritze energetikoa sustatzeko estrategia bateratu bat definituko da askotariko eragileen parte-hartzea bermatuz.

Sustatzailea



## 2 BIRGAITZEN



### Etxeko konforta hobetzea prezio eskuragarrietan

Etxebizitzetako konfort baldintzak hobetu eta CO<sub>2</sub> emisioak murriztu daitezkeela frogatu gura da proiektu baten bidez. Isolamendu soluzioa era kolektiboan eskainiko da.

Sustatzailea



## 3 ERREGULAZIO ERALDATZAILEA



### Trantsizio energetikorako ordenantzak

Herri bakoitzean trantsizio energetikoa garatzeko oztupo izan daitezkeen ordenantza eta erregulazioak identifikatu eta eskualdeko udal-erri guztien artean landu nahi dira. Izan ere, horien bidez energia jasangarriaren eta klimaren aldeko bidea erraztu eta azkartu daiteke.

Sustatzailea



## 4 ENERGIA DENONTZAT



### Inklusio soziala energiaren eremuan txertatzen

Debagoienean inklusio soziala eman dadin, lehen diagnostia egingo da eta pobrezia energetikoari aurre egiteko dauden mekanismoak ikertu. Soluzio integratu bat diseinatuko da publiko-pribatu elkarlanean.

#### Sustatzaileak



## 5 TOKIKO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LABORATEGIA



### Berriztagarrien tokiko esperientzien ikasketa komunitatea

Energia berriztagarrien arloan eskualdean dagoen ezagutza, esperientziak eta ikasketak partekatzeko esparru bat eratuko da, eta bertan modu kolaboratiboan erantzungo zaie ager daitezkeen behar, aukera eta zailtasunei.

#### Sustatzailea




## 6 IKASTEHE-KLIK



### Hezkuntza komunitatearen ahalduntzea energian

Proiektuaren helburua hezkuntza-komunitate osoaren lankidetzeta eta parte-hartze aktiboa sustatzea da, ikastetxeetan energia-aurrezpena eta -eraginkortasuna sustatzeko, trantsizio energetikoaren gaia gizarteratuz.

#### Sustatzaileak



Debagoieneko ikastetxeak

## 7 DEBAGOIENA 2030 AUKERA ENERGETIKOAK



### 2030erako aukera energetikoen azterketa

Debagoiengan etorkizunean emango den egoera energetikoaren prospektiba egitea da helburua, energia kontsumoa eta sorkuntzaren (teknologia mota eta ahalmena) ikuspegitik.

#### Sustatzaileak



Debagoieneko udalak

## 8 ENERGIA ADIERAZLEAK



### Trantsizio energetikoa dimentsionatu eta eboluzioa monitorizatzeko adierazle sistema

Trantsizio energetikoan gako izan daitezkeen adierazleen identifikazio eta diseinua egin ostean, eskualdeko udal zein Udalsarearen datuetan oinarritutako adierazleen gizarteratze eta monitorizazioa egitea.

#### Sustatzailea





[www.debagoiena2030.eus](http://www.debagoiena2030.eus)